

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroan 4.700 langabe gutxiago izan dira azken urtean eta Estatuko langabezia-tasa txikienari eutsi dio, % 14,92

Abenduaren amaieran 46.400 langabe zeuden, Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) emandako datuen arabera

Jueves, 22 de enero de 2015

Nafarroan duela urtebete baino 4.700 langabe gutxiago izan zen iragan urtearen amaieran, hau da, % 9,12 jaitsi zen. 46.400 pertsona daude orain lanik gabe, Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) [2014ko laugarren hiruhileko](#)ari buruz emandako datuen arabera.

Hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz 200 langabe gehiago egon arren, langabezia-tasa % 14,92 da, hots, autonomia erkidego guztien artean txikiena, eta Espainiako tasaren oso azpitik (% 23,70).

Sexuaren arabera, aipagarria da emakumeen langabeziak behera egin duela azken urtean, 3.500 gutxiago (-% 14,17); gizonen langabezian, berriz, 1.100 pertsona gutxiago zeuden lanik gabe, % 4.18 gutxiago.

Denbora-tarte berean, 5.000 okupatu gehiago izan dira, hau da, % 1,94 igo da azken hamabi hilabeteotan, eta aurreko hiruhilekoan baino 1.000 gehiago. 264.300 okupatu daude, guztira.

Adinen arabera, 25 urtetik beherakoen langabezia % 39,1 da (% 51,80 Espainian); 25-54 adin-tartean, % 14,64 (% 22,10 Espainian), eta % 6,42, 55 urtetik gorakoen artean (% 19,07 Espainian). Sektoreen arabera, eta hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz, langabezia jaitsi egin da eraikuntzan (1.400 pertsona gutxiago) eta enplegurik izan ez duen taldean (2.400 gutxiago).

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilari Lourdes Goicoecheak adierazi duenez, "2014ko Biztanleria Aktiboaren azken Inkestako datuek erakusten dute ekonomiaren joeraren hobekuntza pixkanaka enpleguko datuetan islatzen ari dela". Goicoecheak azpimarratu duenez, "oraindik langabe-kopuru handia dugun arren, urtebetean zifra % 9 baino gehiago murriztea lortu da".